

Begira



ULMA

2010eko abendua // 22 zk

Enpresaren Gizarte Erantzukizuna ULMA Taldean



aurrez aurre



Iosu Zabala
*Mondragon
Unibertsitateko
errektorea*

erreportajea



ULMA Construcción
*eta Aluma SYSTEMSekin
duen aliantza
estrategikoa*



Aurkibidea

22 zk • 2010eko abendua



3 > HIZPIDEA..: TALDE baten indarra. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIK:** ULMA Taldeak Web Korporatibo berria estreinatu du. ULMA Agrícola Iranen presente. ULMA Handling Systemsek Frantziako système U OUEST banaketa katearen operazio logistikoak automatizatu ditu. ULMAko Fatxada Aireztatua, kolore biziduna, Gasteizko Salburuko Haurtzaindegirako. **18 > AURREZ AURRE:** Iosu Zabala: Mondragon Unibertsitateko errektorea. **20 > ERREPORTAJEA:** ULMA Taldea eta erantzukizun soziala 50 urte eskutik helduta. **22 > ERREPORTAJEA:** ULMA Construcción eta Aluma SYSTEMSekin duen aliantza estrategikoa. **25 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK:** Gemma Madueño, ULMA Construccióneko bazkidea. **26 > ASTEBURURAKO TXANGOAK:** Alleko, Aralarko talaia ikusgarria. **28 > ZER DERITZOZU?** **29 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK.**

Nazioartean higiezinaren krisi moduan hasi zena, finantza krisia izatera igaro zen, eta ondoren atzeraldi ekonomikoa etorri zen, herrialde askotako finantza publikoetan desorekak eragin dituena; azkenaurreko kapitulua dibisen krisia izan da, herrialde bakoitzaren kokapen lehiakorra hobetzeko ezarri diren politika protekzionisten ondorioz, eta orain zor subiranoaren gaineko mesfidantza hedatu da, Irlandaren erreskatearekin lehertu dena, eta kinielak eginez hurrengo zein izango den. Eta okerrera da krisi horiek guztiak konpondu gabe jarraitzen dutela. Zein izango da hurrengo atala? Zirkulu biziatsu negatiboetan sartuko gara edo gaur egun kontrolaezina dirudien egoerari aurre egitea lortuko da? Horrelako diagnostikoa duen gaixo bat tratatzeak zaila behar du, baina, are gehiago, ikusten ari gara munduan boteririk handiena duten organismoak

daude, 45 kutxa eta 80 kreditu kooperatiba), etab.

Eta irtenbidea, jakina, nazioarteko merkatuak lasaitzearen, defizita murriztea lortuko duen erreforma zerrenda luze batetik etorriko da. Erreforma horiek hainbat arazo estruktural konpondu beharko dituzte, izan ere, orain arte ez zaie horiei jaramonik egin, "ez zelako egiteko unerik egokiena". Aurrean ditugu lan erreforma, pentsioen erreforma, bankuen berrantolamendua, erkidego autonomoen zorpetze publikoaren kontrola, funtzionarioen estatusaren berrikuspena, etab. Horiek guztiak sakrifizioak ekarriko dituzte herritarrentzat eta enpresentzat. Laburbilduta, oso egoera konplikatuan gaude, fronte asko dago zabalik, etorkizuna zalantza betetik dator, eta egoera aurrekusi baino gehiago luzatuko da.

ULMA n zer egin behar dugu? Soluzio global bat sortu behar dugu, TALDEA izateak ematen

ondorioz, prestakuntza eta egokitzapen planak egiteko denbora eman behar dugu, aukerak behar bezala gauzatzeko. Pertsonak irtenbidearen funtsezko elementua gara, etengabeko birziklapenaren bitartez. Merkatuak eraldatzeko duen abiaduraren ondorioz, dagoeneko ez dago enplegu iraunkorrez hitz egiterik. Aldaketaren aurreko egokitzapena beharrezkoa da negozioetan eta pertsonengan.

Aukerak bilatze hori, bai nazioartean oinarrituta, bai negozio arlo berriak eta berrikuntza sustatuz, presente dago Taldeko negozio guztietan eta, horrenbestez, 2010. urtearen amaieran nazioarteko salmentak %60tik gora izango dira. Errealitate bihurtzen ari diren apustu estrategikoak ditugu eta, zerrenda zehatza emateko asmorik gabe, hainbat gogora daitezke, hala nola Eclipse proiektua Agricolan, Conveyor Componentsen



TALDE baten indarra

IÑAKI GABILONDO. ULMA Taldeko Zuzendari Nagusia.

(NDF, G-7, G-20, munduko potentziarik handienetako gobernuak, etab.) ez direla ados jartzen erronkari heltzeko eta, gainera, ematen dituzten errezetak kontrajarriak dira. Esaterako, European Alemaniak, zergen eta monetaren austeritatea aldarrikatu du, inflazioa kontrolatu nahi duelako, eta AEBetan diote pizgarri publikoak eta kreditu laguntzak mantendu behar direla, diruaren prezioa zeroan utziz. Gaur-gaurkoz, badirudi argi dagoela bakoitza bere buruarengan pentsatzen ari dela, komeni zaizkion neurriak sustatzen eta justifikatzen.

Espanian, litekeena bada, egoera are okerragoa da. Erabiltzen ari diren azken datuek paisaia benetan kezagarria erakusten dute. %20 langabezia, BPGaren hazkunde mirrina, gogor erasotua izaten ari dena eta zenbait adituren iritziz berregituraketa behar duen zor subiranoa, azken 4 urteetan eraikuntzaren arloan 150.000 enpresa desagertzea ekarri duen higiezinaren burbuila, 320.000 milioi euro baino gehiagoko zorra orain dela 3 urtekin hona betetzen ez diren birfinantzaketa planak sinatzen eta berritzen ari diren higiezinaren eskuetan, gehiegizko ahalmenari eta batzuek txarrentzat jo duten 2011. urteari aurre egiteko saneatu eta berrantolatu beharra duen banku mapa (100 banku baino gehiago

digun indarrean oinarrituta. Ahalmenak ditugu, negozio egitura dibertsifikatua eta dimentsio globala, eta elementu horiek izan behar dute bermatzeko behar dugun palanka. Horrenbestez, finantza esparru egonkorra finkatzen saiatzen ari gara, datozen urteetan gure negozio planak garatu ahal izateko. Finantza esparru horren oinarrian dago negozio guztiak elkar abalatzeko dutela eta, ondorioz, negozio bati gertatzen zaionak eragina izango du gainerakoetan. Ez dago Talde gisa konpromiso handiagorik hartzerik. Baina konpromiso horrek eskatuko du negozio guztiak erantzukizunez jokatzeko negozio planak proposatzeari dagokionez, negozioen bilakaera kontrolatzeari dagokionez eta, batez ere, konpromisoak betetzeko gai izateari dagokionez. Negozio errentagarriak eta lehiakorrak edukitzeko lan egin behar dugu, balio erantsia duen enplegua sortzeko. Gure balibideak hazteko eta errentagarriak izateko ahalmena duten negozio arloetara bideratu behar ditugu, eta ezaugarri horiek betetzen ez dituzten arloetarako irtenbideak bilatu. Bigarren horiei buruz, ULMA Taldeak dagokion erantzukizuna hartu behar du eta eragiten dien pertsonen dagokionez, aukera berriak sortzeko duen gaitasuna erabili behar du. Negozioak aukerak sortzen ari dira eta,

nazioarteko garapena eta gama altuko arrabolak, Orga Jasotzaileetako operadore logistiko handiak eta nazioartekotzea, Handling Systemseko proiektu handiak eta USLko Bagage Handling lerroa, Pipingeko proiektuen merkatua, Hormigon Polimeroko nazioartekotzea, Mondinirekin egindako aliantzak Packagingen, edota AEBetan Construcciónek Alumarekin lotutako aliantza. Horri guztiari gehitu behar zaio azken urtean bi kooperatiba berri eratu direla, Inoxtruck eta Embedded.

Hori da ULMA Taldean daukagun bide bakarra murgilduta gauden egoerari aurre egingo badiogu. Ezin ditugu inguratzen gaituzten baldintza makroekonomikoak aldatu eta, beraz, ez dezagun denbora gal egin ezin dugunagatik kexatzen, eta hel diezaiogun egiazki gure eskuetan daukagunari.

Azkenik, zorionak eman nahi dizkiet Orga Jasotzaileei eta Handling Systemsi egin berri duten banaketagatik, momentu ekonomiko zail honetan negozioen beharra interes pertsonalen aurretik jartzea erabaki dutelako.



ULMA Agrícola

ULMA Agrícola Iranen presente

Iran Pertsiar Golkoko herrialderik zabalena da, 74 milioi biztanle inguru ditu, eta nekazaritza tradizionalki funtsezko sektorea izan da bertako ekonomiari dagokionez. Azken urteetan hazkunde ekonomikoa erritmo bizian garatu da eta, zalantzarik gabe, merkatuko potentzial handia da, bai biztanleriaren neurriagatik, bai dituen natur baliabide ugariengatik. ULMA Agrícolak urteak daramatza Irango merkatuan lanean, eta marka finkatuaren irudia dauka bertan, enpresak irmoki erabaki baitzuen merkatu hori bultzatzea; horretarako, hitzarmen estrategikoak lortu ziren tokiko bazkideekin, horien artean Sabz Ashian – Apadanarekin, zeina ULMAk 2005az geroztik herrialdean duen agente banatzailea den. Proiektu hau Varaminen dago, Teheran hiriburutik hurbil: nekazaritza tradizio handiko eskualdea da, eta bertan 4 berotegi proiektu garatu dira, 2007az geroztik. Varamin inguruneke klima oso muturrekoa da, hau da, udako batez besteko tenperatura 45°C da, eta neguan, berriz, zero azpitik hainbat

gradu izaten dira, elur prezipitazioak ohikoak izanik. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da berotegi barruko baldintza klimatikoak erabat kontrolpean izatea, eta berotegia hornitzea une jakin bakoitzean laboreak behar dituen tenperatura eta hezetasun baldintza egokiak lortzeko beharrezko ekipamenduetarekin. Instalazioak 15.000 m² baino gehiago ditu, hozteko sistemarik aurreratuenak dauzka (cooling eta fog), berokuntza (haize berorako sorgailuak), homogeneousazioa (aire birzirkulagailuak), itzal egiteko pantaila eta energia eta ura aurrezteko sistema (perlita bidezko hidroponikoa), guztia ala guztia automatismo baten bitartez sistema bakar batean integratuta. Sistema horri esker, nekazariak aurretiaz programatu ahal izango du, eta, berotegian jarritako bateko eta besteko sentsoreek egindako neurketetan oinarrituta, ekipamenduari modu koordinatuan eragin ahal izango dio, laborerako tenperatura/hezetasun erlaziorik egokiena lortzeko.

ULMA HORMIGÓN POLÍMEROK CTE APLIKAZIOAREN IKASTAROAN PARTE HARTU DU, MALAGAKO UDALAK SUSTATUTA.

Joan den irailan Malagako Udalak, Etxebizitzaren Udal Institutuaren bitartez (IMV), eta Malagako Unibertsitateak sustatutako ikastaroaren bigarren zatia gauzatu zen, IMVko arkitekto eta aparejadoreei, Hirigintzako Gerentziakoei eta Malagako Aparejadoreen Elkargokoei zuzenduta, besteak beste. ULMA Hormigón Polímero ikastaroan hizlari moduan parte hartu duten enpresa laguntzaileen taldekoa da. Aurkezpenean ULMA Fatxada Aireztatuak eta gure Eraikuntzako Aurrefabrikatuak azaldu ziren. Zehazki, I+Gko arduraduna eta Errehabilitaziorako Soluzio Berezien arduraduna aritu ziren Fatxada Aireztatuen eta Eraikuntzako Aurrefabrikatuen soluzio teknikoak aurkeztuz. Esperientzia oso positiboa izan zen bi aldeentzat, ULMAren aurkezpena hizlarien eta bertaraturakoen arteko elkarrizketa ireki bihurtu baitzen. Ikastaroaren lehenengo zatia joan den maiatzaren 21ean egin zen, Malagako Unibertsitateko (UMA) Ingeniaritza Eskolan.



ULMA Hormigón Polímero

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA ORGA JASOTZAILEEN NEGOZIOAK BERE ALOKAIRU EGOKITUEN POLITIKA AREAGOTU DU.

ULMA Orga Jasotzaileen negozioak Madrilgo FCC Logísticaren parkea hornituko du datozen lau urteetan: erreferentziatzko operadore logistikoa da hori, hornidura katearen kudeaketa integratuari dagokionez. Hasteko, bezeroaren eta haren beharren azterketa egin eta gero, behar horien arabera proiektu bat aurkeztu zitzaien, 80 makina + salmenta ondoko zerbitzua; zerbitzuan Orga Atzeragari Estandarrak sartzen dira, 1.600 kg-ko Drive-in kabina dutenak, eta 1.600/2.000 kg-ko Orga Jasotzaile Elektrikoak, etxetresna elektrikodun pintzekin, izan ere, biltegi logistikoen 9,5 m-ko altuera duten apalak eta drive-in apalak baitaude, desplazamendu handiak egin beharra eragiten dutenak. Kasu horretan, FCCko zuzendariak ULMAk aurkeztutako proiektuaren

alde egin zuten, gerta daitekeen edozein gorabeheraren aurrean salmenta ondoko zerbitzu azkarra eta eraginkorra eskaintzen duelako. Zerbitzuaren eraginkortasuna funtsezko faktorea izan da, eta eraginkortasun horren gakoak izan dira teknikariek "in company" lan egingo dutela eta bezero handien departamentua bera.



ULMA Taldea

ULMA Taldeak Web Korporatibo berria estreinatu du

Interneteko gune moderno eta erakargarria, nabigatzeko oso intuitiboa eta ikus-entzunezko edukiz betea



Web berriak gaur egun Internet mundua gidatzen ari diren azken joerak integratu ditu. Izan ere, duela urte batzuk Youtube fenomenoak agertu zenetik, belaunaldi berriko webguneek bideo formatua ere barneratu dute, ezagutarazteko osagarri egoki gisa. ULMA taldearen webgune berria, seguruenik, sarean aurki daitezkeen orrialde korporatiboaren artean ikus-entzunezko edukia gehien dituenetakoa izango da, bertako atal eta azpialat guztiek horrelako pieza bat eskaintzen baitute. Kalitate handiko bideo txikiak, dauden testuak eta irudiak osatuz, Taldearen ahalmen tekniko eta humano guztia deskribatzen dute. Grafikoki, interfaze moderno eta oso intuitiboa sortu da, bi

menu mailarekin. Lehenengoan, Taldearen Negozio unitateak erakusten dira, argi eta zehatz, eta bigarrenaren ezaugarriak eta balio bereizgarriak aletzen dira. Webgune bizi eta dinamikoak izateko helburuarekin programatu delarik, bertan sartzen garen bakoitzean ohartuko gara homearen irudi nagusia aldatuz doala. 2.0 bokazio argiarekin, web orriak etorkizunean atal berriak gaineratuko ditu. Helburu garrantzitsu honetan sakontzeko, Sare Sozialek presentziak rol erabakigarria dauka. Horregatik, web berria zuzenean lotzen da ULMAk Interneten sortutako profil sozial berriekin. ULMA Taldearen webgune berria, beraz, orri bizi, moderno eta eguneratua da. Animatu eta sar zaitetz.

> Albisteak eta gaur egungo gaiak



ULMA Construcción

ULMA CONSTRUCCIÓNENKO POLONIAKO FILIALAK PRESTIGIO HANDIKO ENPRESAREN ERREKONozIMENDUA JASO DU.

ULMA Construcciónek Polonian duen filiala "PremiumBrand" saria lortu duten enpresetako izan da, burtsan kotizatzen duten enpresen ospeari buruz egiten den azterketaren hirugarren edizioan. "PremiumBrand" ekimenaren helburua da inbertitzaile nazionalen artean entzute handia duten enpresak saritzea. Azterketa Varsoviako Burtsan kotizatzen duten akzioak dituzten konpainien artean egiten da. Aipatu errekonozimendua emateko sistema MAISON Research House etxeak garatu du, eta enpresaren azterketa batean oinarritzen da, 4 arlori dagokienez: enpresa orientazioa, kudeaketari buruzko iritzia, harreman komertzialen fidagarritasuna eta irudia. Azterketa SMG / KRC etxeak egin zuen 2010eko abuztuan, eta 2006an sortu zen "PremiumBrand" sariak aurren 7 enpresa errekonozitu ditu, horien artean: ULMA Construcción Polska SA.

ULMA Conveyor Components

Hitzarmena ULMA Conveyor Componentsen eta Paakkola Conveyors OYren artean

ULMA Conveyor Componentsek lankidetzan hitzarmena izenpetu du, Finlandian bere arrabolak banatzeko, garraiatzaileak eta meatzaritzako ekipamenduak fabrikatzen dituen Paakkola Conveyors OY etxearekin. Hitzarmenarekin Paakkolaren proiektu berrietarako arrabolak salduko dira, baita ordezkotze piezak ere, Finlandiako merkaturako. Kontratuaren barruan ULMAren laguntza teknikoa sartzen da, Finlandiako Tervolako instalazioetan arrabolak ekoizteko unitate txiki bat instalatzeko, bezeroei zerbitzu ezin hobea eskaintzeko helburuarekin. Paakkola Finlandiako iparraldean dago, Laponiatik hurbil, eta bertan daude kontzentratuta Eskandinaviako meategi gehienak. Dauden tenperatura baxuak direla eta, -40°C , arrabolan koipe bereziak erabili behar izan dira. Aipa daiteke arrabol horiek komertzializatzeko ULMA & Paakkola marka erabiliko dela, ULMAren esperientzia eta know-howa eta Paakkolaren Finlandian duen entzute ona jasotzen dituen. Hitzarmenarekin bat eginda, Danimarkan eta Suedian ordezkari hitzarmenak ere sinatu berri dira eta, horrenbestez, Eskandinavia funtsezko eskualdea bihurtu da datozen urteei begira ULMA Conveyor Componentsen salmentak nazioartekotzeko prozesuaren barruan.

BA AL ZENEKIEN...

Joan den urrian ADEGI TOP jardunaldietako bat egin zen ULMA Taldeak Oñatin dituen instalazioetan. Egunean zehar egindako topaketak oso balorazio ona lortu zuen amaierako ebaluazioan. Taldearen Proiektu orokorraren aurkezpenak, sustapen politikaren azalpenak, ULMA Embedded Solutionsen adibide praktikoarekin, eta Zaintza Teknologikoari eta Adimen Lehiakorrari buruzko argibideek jardunaldian elkartutako kideen aurreikuspenak ase zituzten. Aurrera egiten eta etorkizunaren alde lan egiten jarraitzeko formulazioak oso harrera ona izan zuen.



ULMA Handling Systemsek Frantziako système U OUEST banaketa katearen operazio logistikoak automatizatu ditu

Konpainiak logistika automatizatzeko sistema osatua garatu du Les Herbierseko zentroan, Nantestik hurbil. Plataformak ehungintzako eta bazarreko produktuz hornitzen ditu 140 saltoki guztira

ULMA Handling Systemsek automatizazio logistikorako sistema bat garatu du Frantziako Système U Ouest talde banatzaile ospetsuarentzat, ehungintzako eta bazarreko produktuak automatikoki biltegitatzeko eta eskariak prestatzeko. Instalazioa konpainiak Les Herbiersen duen plataforma logistikoa kokatu da. Bi produktu kategoria horien barruan, zentro logistikoak Frantziako mendebaldean eta iparraldean dituen denden hornikuntza kudeatzen du, guztira 140 saltokirekin. Système U Ouest 300 komertzio outlet elkartzen dituen kate bat da, kooperatiba erregimenean funtzionatzen duena, eta merkatuan hiru lokal motarekin dago presente, beste hainbeste markarekin: Hyper U dendak, 4.000m² baino gehiagoko azalera dutenak; Super U dendak, 3.000m²-rekin, eta Marche U dendak, 1.000m²-rekin. ULMAk kate banatzailearentzat diseinatu eta garatu duen proiektuaren oinarria ehungintzako eta bazarreko gaiei lotutako jardura logistikoak automatizatzea da, eskariak prestatzeko prozesua optimizatzeke eta, horrenbestez, egindako operazioen produktibitatea eta kalitatea hobetzeko. Proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko, 2013ra arte hazkunde tasa handia proiektatu da, gero eta erreferentzi kopuru eta operazio fluxu handiagoarekin. ULMA Handling Systemsek garatu duen automatizazio sistema bazarreko 2.000 erreferentziari aurre egiteko diseinatu da, egunero 5.000 eskari lerroekin; ehungintzako erreferentziei dagokienez, 7.000 produktu dira, eta egunero 22.000 eskari lerro prestatu nahi dira. Sisteman, guztira, Miniload-Fine Stocker motako 6 transjasogailu daude, gune finkoak

dituztenak, espezialitatearen arabera: gune finko bat fatxadan, Bazarrerako, eta 2 postu finko Ehungintzarako; gainera, 3.600 kokapen dinamikoko daude, transjasogailuek automatikoki hornitzen dituztenak. Artikulu gehienak edukiontzietan biltegitatzen dira. Eta instalazioak, guztira, 34.000 edukiontzi biltegitatzeko ahalmena dauka. Picking operazioak Pick to Light sistemen bitartez egiten dira, produktuaren kokapenaren gainean eta eskariak prestatzeko organ gainean (picking cart), eta horiek hariarik gabeko displayak dituzte (wireless). Eskariak prestatzeko metodo intuitibo horri esker, langileak ez du paperean oinarritutako metodoek ezartzen dituzten irakurketa eta idazketa lanik egin behar. Wireless diseinu eksklusiboak biltegitoko edozein lekutan erabiltzea ahalbidetzen du, kableen eta lotura finkoen beharrik gabe. Système Uk daukan picking sistemak aukera ematen du malgutasunik handiena lortzeko, eta displayak edozein unetan jartzen dira biltegitoko edozein puntutan. Sistemaren barruan kolore desberdinetako 3.600 display baino gehiago daude, lan egiteko modu sortzaileak eta malguak eskaintzen dituztenak, eta gune berean eta aldi berean multilangile edo multieskari prozesuak egitea ahalbidetzen dute. Biltegitoko espazioaren erabilera optimizatzen da, eta edozein lekutan sailkapena egiteko put-to-light sistema prestatzen da berehala. Soluzio mugikorra da, garraiatzen erraza, eskaria prestatzeko prozesu osoan laguntzen duena. Sistema kontrolatzeko ULMA Handling Systemsek garatutako SGA bat dago, Système U Ouesten kudeaketa programarekin denbora errealean konektatuta dagoena.



Antzeko ezaugarriak dituen beste planta baten argazkia, Qatarren

ULMA Pipingek hornidura hitzarmen bat lortu du Japoniako CHIYODA ingeniariarekin

ULMA Pipingek hornidura hitzarmen bat lortu du Japoniako CHIYODA ingeniariarekin, 2 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoarekin, ingeniaritza hori Papua Ginea Berriko gasa likidotzeko "giltza eskura" eran garatzen ari den plantarako briden pakete osoaren hornidura integrala egiteko. PNG LNG proiektua munduan gasa likidotzeko aktibo dauden proiekturik handienetakoa da, eta bere aurrekontua 15.000 milioi dolar baino handiagoa da. Chiyodarekin lortu duen eskari honi esker, eta urtean zehar itxi dituen beste zenbaiti esker, ULMA marka ezaguna egiten ari da mundu mailako ingeniaritza nagusien artean. Papua Ginea Berriko PNG LNG proiektua ExxonMobil etxea gasaren arloan bultzatzen ari den proiektu berri bat da, herrialde hartako hegoaldeko eta mendebaldeko goi lurraldeetan hiru gas hobi handi ustiatzeko (dituzten erreserbak hiruzpalau bilioi oin kubiko dira). Ekoiztako gas likidotua bereziki Txinari salduko diote. Aurreikuspenen arabera, planta 2014rako egongo da operatibo, eta gasa likidotzeko 2 trenoz osatuta egongo da, urteko 6,6 milioi tona ekoizteko ahalmenarekin. Aipatu plantaren jabe eta operadoreak dira ExxonMobil, %41,6rekin, Oil Search, %34,1ekin, Santos, %17,7rekin, AGL, %3,6rekin, Nippon Oil, %1,8rekin, eta Mineral Resource Development Corporation / State, %1,2rekin.

BA AL ZENEKIEN...

Pasa zen udan, desafio berezia izan genuen ULMA Precinoxeko zenbait lankideren artean. Bizikletan eta antxintxika eginez, bi talde osatu ziren. Desafioaren helburua, Urbiako fondara ea zein talde iristen zen lehen; horretarako, Oñatitik bizikletaz irtenez eta Arantzazuko Sindika jatetxe parean antxintxikako erreleboa eginez. Talde bat Aritz Biaiñek eta Kepa Urrestarazuk osatzen zuten, eta bestea Iñaki Gurrutxagak eta Ruben Lanzek. Talde bakoitzeko aurrenek bizikletan egin zuten Oñatitik Sindikarako ibilbidea, eta bigarrenek antxintxika Sindikatik Urbiako fondarainokoa. Aldi berean, beste desafio bat zegoen tartean, hau da, Santi Iglesiasen eta Iñaki Gurrutxagaren artekoa. Iñaki Gurrutxagak 10 minutuko abantaila emanez Santiri, Sindikara, bera aurretik iritsiko zela bota zion erronka, eta besteak hartu. Azkenean, taldeko desafioan Iñaki eta Ruben izan ziren irabazle, eta banakako erronkan Santi atera zen garaile, Iñakik emandako abantailarekin. Taldekako proba oso parekatua egon zen, eta Santik nahiko tartetxo polita eduki zuen Iñakiren kontrako erronka irabazteko. Bazkaria, Larringain sozietatean izan zen, eta jai girorik ez zen falta izan. Azkenean, desafioak desafio, aitzakia polita lagun eta lankide arteko bazkaria egiteko.



Mikel Gantxegi Mundukide Fundazioko zuzendaria, Xabier Mugarza ULMA Fundazioaren Patronatuko lehendakaria eta Jokin Aperribay Real Sociedadeko lehendakaria.

ULMA FUNDAZIOAREN AURKEZPENA. Joan den irailaren 23an ULMA Fundazioa aurkezteko ekitaldia egin zen, ULMA Taldeak Oñatin duen Auditoriumean. Ekitaldian ULMAko interes talde guztiak izan ziren, eta Real Sociedadeko lehendakaria den Jokin Aperribay eta Mundukide Fundazioko zuzendaria den Mikel Gantxegik ere parte hartu zuten. Aurkezpenean, Xabier Mugarza ULMA Fundazioaren Patronatuko lehendakariak Fundazioaren helburuak eta Erantzukizun Sozialeko ekintzen dekalogoak aurkeztu zituen, eta, horrez gain, *Zuretzat* webgunea ere ezagutarazi zuen, hau da, ULMA Taldearen Enpresa Erantzukizun Sozialaren berri emateko kanal nagusia. Jokin Aperribayk, berriz, bere hitzaldian gai hau landu zuen: *Talde lanaren balioak Arrakastarako filosofia gisa*, eta, ondoren, Mikel Gantxegi Mundukide Fundazioko zuzendaria mintzatu zen, *Mundukideren utopiaz berba* egiteko.

ULMA Packaging

ULMA PACKAGING ETA GH, BENELUXEN ELKARTUTA. Aliantza honetan ULMA Packaging BVk (Holanda), GHk (Belgika) eta Phi-Packek (Holanda) izenak eta nortasunak mantenduko dituzte. ULMA Packagingeko gerentea den Cecilio Lejarretaren iritziz, *"honako hau enbasatzeko eta enbalatzeko Europako merkatuak duen bilakaerarako erantzun perfektua da. Makina osagarrien fabrikatzaileak izaera eksklusiboarekin ordezkatuak dituzten salmenta eta zerbitzu guneak zabaltzeko beharra ikusi dugu, Kontuan hartu behar da mundu mailan dagoeneko lankidetzaren handia dagoela ULMAren eta Mondiniren artean"*. Dairy-pack-i eta Rochman-i esker, bere produktu gama zabaltzeko ahal izan du esnekien sektorerako termokonformatze eta termozigilatze makinekin, eta film atzeragarriko bilgailuekin, atzeraldi irekiarekin edo itxiarekin. ULMAko I+G+b departamentuan eta prestakuntza zentroan 100 pertsonak baino gehiagok lan egiten dute, etengabeko berrikuntza eta bezeroari zuzendutako enbasatze soluzioak bermatzeko.



ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímero ERAIKUNE - Euskadiko Eraikuntzaren Klusterreko Zuzendaritza Batzordeko kidea da



ULMA Hormigón Polímero, beste 35 enpresarekin batera, ERAIKUNEko Bazkide Fundatzailea da eta, gainera, Zuzendaritza Batzordeko kidea ere bada, honako enpresa eta sozietate hauekin batera: Construcciones SUKIA, CONSTRUCCIONES ZABALANDI, Construcciones SARKIS LAGUNKETA, Ingeniería IDOM, Arquitectura Estudio K, Arquitectura LKS, Tecnalia, Sprilur eta Eusko Jaurilaritza. Proiektuak 2008. eta 2009. urteetan Eraikuntzaren Industrializazioaren Foroak garatutako lanean du abiapuntutzat, orduko helburua izanik eraikuntzaren sektoreko kluster elkarte baten eraketa formalizatzea. Klusterra eratuta, Euskadiko eraikuntzaren sektorearen lehiakortasuna hobetzea da xedea, sektorean parte hartzen duten eragile guztien bilgunea izango den erakunde bat sortuz eta, ondorioz, jarduteko prozedura berriak eta elementu berritzaileak ezartzeko

ekimenak garatzen lagunduz, sektorearen, oro har, eta, zehazki, parte hartzen duten eragile bakoitzaren hobekuntza globala lortzeko. Klusterraren jardura ildoak dira Enpresa Lankidetzaren, hau da, enpresen arteko lankidetzaren babestea eragile guztien parte hartzea bideratzeko espazioak sortuz, bertatik sektorearen lehiakortasuna hobetzeko estrategiei heldu eta sustatzeko. Sektorearen behatokia izatea eta abangoardiako ezagutza eskuratzen laguntzea (sektorearen lehiakortasunaren Zaintza). Merkatu berrietarako sarbidea, nazionalak zein nazioartekoak izan, I+G+b Berrikuntza, dauden produktu, prozesu edo sistemak optimizatzeko edo berriak sortzeko, Eraikuntza prozesuen industrializazioa eta Ekonomia, gizarte eta ingurumen iraunkortasuna, sektorea ekonomia, gizarte eta ingurumenarekiko erantzukizunaren esparruan garatzeko.

BA AL ZENEKIEN...

ULMA Conveyor Componentsek ikastaro bat garatu du Prozesu bidezko Kudeaketa Sistemaren ezarpena indartzeko helburuarekin. ARAZOEN EBAZPEN SISTEMATIKOA izeneko prestakuntza saioa Fabrikazio, Kalitate, Mantentze eta Bulego Teknikoaren arlo funtzionaletako langileei zuzenduta egin da. Ikastaroa neurri diseinatu zuen Mondragon Unibertsitateak, eta ULMA Conveyor Componentsen instalazioetan eman da. Ikastaroaren helburu nagusia izan da Heavy Duty, Medium Duty eta Unit Handling lerroen prozesuen kudeaketaren efikazia eta efizientzia optimizatzea, Batzordeei, Foroei eta taldeei produktuaren/prozesuaren kalitatea bermatu ahal izateko metodoak eta tresnak emanez, arazoak modu sistematikoan lehenesteko, aztertzeko eta konpontzeko gai izateko, taldean lan eginez modu efikaz eta efizientean.



Harpak, Inc. eta ULMA Packaging Systems, Inc. bat eginik, Harpak-ULMA Packaging LLC sortzeko

Amerikako Estatu Batuetan ontziratzeko soluzioak eskaintzen dituzten Harpak, Inc. eta ULMA Packaging Systems, Inc. hornitzaileak elikaduraren, medikuntzaren eta industriaren sektoreetan aritzen dira nagusiki, eta 2010eko udan bat egingo zutela jakinarazi zuten. Enpresa berriak izen berria izango du, hau da, Harpak-ULMA Packaging, LLC deituko da. Harpakeko lehendakari Linda Harlfinger-ek adierazi zuenez: *“Oso pozik gaude bi enpresek bat egitearekin batera agertzen zaigun aukerarekin. Harpak ontziratze sistema integratuen giltza eskura erako soluzioak landu ditu. ULMAk bezeroei lehen mailako ontziratzea egiteko askoz aukera gehiago eskaintzeko modua dakar berekin. Bi konpainietako bezeroek abantaila hau lortuko dute: Harpakek termozigilagailuetan eta betetzeko eta bigarren mailako enbalatze prozesuan inbertsio handiak egin ditu, eta ULMAk, berriz, inbertsio*

handiak egin ditu Flow Packean, Termokonformatuan, Atzeragarrian (alboko soldadura eta faxaketa) eta bilgarri Bertikaletan. Baliabide horiek uztartuta, eta dituen bitartekoak kontuan hartuta, bat eginiko konpainia berriak enbasatzeko soluzio integratuen gama zabalagoa eskaini ahal izango die bezeroei”. Horrez gain, ULMA Packaging Systems, Inc.eko zuzendaria den Bill Chastain-en iritziz, “bategiteak aukera emango digu bezeroei enbasatzeko soluzioen gama osatua eta gaur egungoa baino euskarri tekniko hobea eskaini ahal izateko. Bi enpresen indarren konbinazioak Harpak-ULMAri enbasatze eta enbalatze soluzio osatuak eskaintza ahalbidetuko dio, bezero bakoitzaren beharren arabera guztiz pertsonalizatuak. Enbasatzeko makinetan eta euskarri teknikoan eskaintzen dugun gama handitzen doan haienean, gure bezeroekin lan egiten jarraitzea espero dugu”.

BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeak, 2.0 garatzeko estrategiaren barruan, Blog Korporatibo bat abiarazi du, sarbidea Portaldeetik duena, bazkideek eta langileek interes sozio-enpresarialeko gaiak buruzko iruzkinak eta iritziak eman ditzaten. Tresna hau dagoeneko garatuta dagoen Wiki plataformari gehitzen zaio, proiektuak partekatzea zuzenduta. Horrez gain, Enpresa Erantzukizun Sozialaren eremuan, ULMAn Vimeo, Youtube, Facebook eta beste hainbat kontu ireki dira, Interes Taldeekin hitz egiteko.



ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileak-ek operazio handi bat itxi du SEUREkin


Orga jasotzaileen flota handi bat zuzendu eta optimizatzea zeregin nekeza eta zaila da, eta neurrira egindako soluzio integralak behar dira, azkarrak eta eraginkorrak, berrikuntzarako bokazioa duen enpresa batek baino eskaini ezin dituenak. Bokazio horri esker, eta bezero handien departamentu sortu berriari esker, munta handiko operazio bat itxi berri da SEUREkin; SEUR konpainia liderra da Presazko Garraioaren arloan (presazko mezularitza eta bidalketa), eta datozen lau urteetarako haren hornitzaile bihurtu gara mantentze ekipamenduei dagokienez. ULMAn egin den azterketaren ondorioz, zeinean parkearen beharrak eta ezaugarriak baloratu diren, guztira 40 orga jasotzaile jarri dira SEUREn esku, 1.600 kg-ko orga jasotzaile elektrikoak, muntatutako gidaridun traspaleak eta maila baxuko eskari jasotzaileak. Operazio honetan, produktuaren kalitateaz gain, hil edo bizikoa izan da salmenta ondoko zerbitzua, SEUREk duen handicap nagusia pakete zirkulazio handiko orduetan orga jasotzaile guztiz operatiboak behar dituela baita, bere jardueraren tipologia dela eta. Ondorioz, zerbitzu integrala eta etengabea, geldialdirik gabe, emateko helburuarekin, ULMAko teknikariak jarriko dira SEUREko instalazioetan lan egiten. Finean, azterketa eta soluzioen inguruan bi enpresen artean izandako elkarlanari esker lortu den operazioa.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímeroren soluzio berezia Gandian terrazak zaharberitzeko

ULMA Hormigón Polímerok forja berezizko fronte bat diseinatu eta fabrikatu du, 60 apartamentuko eraikin bat zaharberitzeko, Valentziako La Safor eskualdeko hiriburua den Gandian. Manila eraikina 70eko urteetan jaso zen, boom turistikoa bete-betean zela, eta hondartzako lehenengo lerroan hazi zen, hiriko eraikinik enblematikoenetakoa bihurtu arte. Denborak aurrera egin ahala,

terrasetako kanpo erremateko harri artifizialezko piezak zaharkitu egin ziren, hondartzako lehen lerroko giro sarkorraren ondorioz, eta armazoiak herdoildu eta harri morroiloak erortzen hasi ziren, ondorioz, kendu egin ziren. Terrasetako ertzaren egitura hondatuta geratu zenez, hezetasuna eta filtrazioak areagotu egin ziren, eta habe-habexketan oxidazioak eta bobedatxo zeramikoetan dilatazioak gertatu ziren; ondorioz, habearteko materiala erortzen hasi zen. Proiektuaren egilea den eta eraikinak zaharberitzeko soluzioetan espezializatuta dagoen Ignacio Lafuente Niño arkitektoak erabaki zuen hormigoi polimerozko piezak erabiltzea, hain zuzen ere ingurumen erresistentziagatik, izan ere, ez du elementu herdoilgarririk, eta L forma aukeratu zuen forjatuak estaltzean eraikinaren hasierako tantakina berreskuratzeko. Gutxi gorabehera 2.000 metro lineal erabili ziren. Eta Hertomar SL enpresa errehabilitatzailea arduratu zen aipatu piezak ordezteaz. Hormigoi polimerokoak, iragazgaitasun ezaugarri bikainak dituen, oso material egokia da horrelako giroetarako, kresala arazo handia izaten baita metalezko hagaxkaz armatutako harri artifizialerako. Lafuente jaunak behin baino gehiago aukeratu du material aurrefabrikatu hau kostaldeko eraikinak zaharberitzeko, iragazgaitza, tenperatura aldaketekiko erresistentea eta arina delako. Gainera, azkoin enbutituen bidezko ainguraketa sistema samur bat dauka eta, ondorioz, oso erraz instalatzen da obran, eta enpresa errehabilitatzaileak ere errazago egin dezake lan. Molde bidezko fabrikazioari esker, diseinurako askatasun handia eskaintzen du, eta piezak proiektu bakoitzaren beharretara eta arkitektoaren irizpideetara egoki daitezke.



ULMA Agrícola

ULMA AGRICOLAK BEROTEGI BAT INSTALATU DU HIRI BARATZE EKOLOGIKOAK ETA INGURUMEN ESKOLAK UZTARTZEKO.

ULMA Agrícola Venlo motako beirazko berotegi bat instalatu du Cubas de la Sagra udalerrian (Madrilgo Erkidegoa), E Planaren proiektu baten barruan, hiri baratze ekologikoak eta ingurumen eskolak uztartu eta biztanleak ekologiarri buruz kontzientziatzeko helburuarekin. Instalazioa beirazko 4 nabez osatutako berotegi bat da, bakoitza 5 m luze kanalera, eta 310 m²-ko azalera betetzen du, hiri baratze ekologikoen eraikin nagusi gisa. Egitura hori prestatuta dago aldi berean bi jarduera garatzeko, hau da, gune bat izango du, lurra lantzeko, eta beste bat bulegoak eta ingurumen ikasgelak hartzeko; bertan, eskolak eta hitzaldiak eman ahal izango dira ekologiarri eta ingurumenari lotutako gaiari buruz. Horrez gain, berotegiaren barruan erdisoto bat ere badauka, instalazioaren erabiltzaileentzako aldagelak eta komunak hartzen dituena. Instalazioa osatzeko, 6,4x7 m eta kanal azpiko 3 m-ko berotegi multikapera bat ere badauka, lanabesak eta makineria gordetzeko biltegi gisa.





ULMA Hormigón Polímero

ULMAko Fatxada Aireztatua, kolore biziduna, Gasteizko Salburuko Haurtzaindegirako

0-3 urteko haurrentzat Gasteizko Salburua auzoan inauguratu berri den haur eskola ULMA Hormigón Polímeroko fatxada aireztatuarekin jantzi dute, eta proiekturako bereziki diseinatu diren bi kolore bizi erabili dira: lau kutxak mugatzen dituzten laranja eta pistatxo berdea, eta beste hirugarren kolore bat, gris estandarra, kutxa gris neutroekin lotzeko. Eraikina proiektatzean, Aroa Sostenible enpresako kideak diren Eduardo Moscoso del Prado, Angel Cadarso de Santillan eta Bortzaieriz Tejada Donnay egileek oso kontuan hartu dute eraikinaren alderdi funtzionala, ez soilik kolore biziak aukeratzeari dagokionez, baizik eta baita ere materiala aukeratzeari dagokionez, hormigoi polimeroa oso material erresistentea baita kolpeekiko, hauskorragoak diren beste material zeramikoz ez bezala. Haurtzaindegia eraikitzeko industri sistema bat erabili da, eta 20 m²-ko moduluak eraiki dira;

horiek guztiak elkarri lotuz, hezkuntza zentroa osatzen duten guneak egituratzeko piezak osatu dira: gelak, logelak, komunak, jangela, psikomotrizitate gela, etab. Moduluak fabrikari egiten dira, eta euskarria zurezko egitura bat da, eta zurezko eta pladurrezko barruko trenkada multzoa. Eraikuntzako sistema horri eta ULMAren fatxada aireztatuaren instalazioari esker, obra egiteko epeak %50 murriztea ahalbidetu da (gelak 5,5 hilabetean egin dira), eta, ingurumen iraunkortasunaren aldetik, lorpenak oso garrantzitsuak dira: CO₂ko %90 emisio gutxiago sistema tradizionalarekin alderatuta, %35eko aurrezpena transmisio termikoaren koefizientean, eta biomasazko galdara, ur zirkuitu bidezko zoru erradiatzaileko berokuntzarako. Eraikina, CO₂ emisioaren arabera duen sailkapenari erreparatuta, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren parametroen eta programen A multzoan dago.

ULMA Packaging

AURREZ MOZTUTAKO KARTOIZKO BANDEJA EKOLOGIKOAK HARAGIA ENBASATZEKO. Kontsumitzaileek haragia erosteko modua zinez aldatuko da hondakinak murrizten dituen enbase ekologiko berria merkaturatu eta gero. Enbase berria Ingalaterra, Eskozia eta Galesen 231 denda dituen Waitrose supermerkatu kateraren eskutik dator. Waitrosek egin duen aldaketaren ondorioz, haragiaren bandeja ezaguna iraganeko ontzi bihurtuko da. Bandejen ordez kartoizko oinarriak erabiliz, bezeroen zabor poltsatik urtero 90 tona hondakin plastiko desagertzea lortuko da. Enbaseak oso erraz ireki daitezke, guraizez, eta ondoren edukia zuzenean zartaginera pasatu; ondorioz, sukaldean denbora aurreztuko da, eta zabor poltsan ere leku gutxiago beharko da. ULMA Packagingek enbaseetarako jarri duen teknologia flow pack izenekoa da, zehazki, ARTIC bilgailuarekin egiten duena. Enbasatzeko teknologia hori dagoeneko beste elikagai batzuk enbasatzeko ere erabiltzen ari zen, hala nola entsaladak eta patata frijituak enbasatzeko. Lortu den enbasea aldi berean arina eta sendoa da, erosketan paketeak pilatu ahal izateko. Enbase ekologiko honekin enbasatuko diren lehenengo produktuak haragi xehatua eta dado formako haragi puskak izango dira. Argazkian ikus daitezkeen enbasea DOVECOTE PARKek erabiltzen du, hau da, Waitrosen behi haragitarako hornitzaile esklusiboak.

Waitrosen haragitarako flow pack enbase ekologikoa.



ULMA Handling Systems

ULMA HANDLING SYSTEMS, ID TRACK BILTZARREKO ETA FARMAZIA LOGISTIKAKO EKITALDIKO PROTAGONISTA.

ULMA Handling Systems hainbat Jardunaldi eta Biltzarretako protagonista izan da, farmaziako trazabilitate eta logistikako soluzioak garatzeari buruzko ezagutza eta joera berriak erakusteko. ESPAINIAKO IDENTIFIKAZIO ETA TRAZABILITATE TEKNOLOGIEN BILTZARRA izan da ULMAk parte hartu duen lehenengo ekitaldia, joan den azaroaren 18an. Zehazki, SOFTtrack ekitaldia protagonizatu zuen, zeina bigarren urtez Bartzelonan egin den, 80 profesional elkartu zituen aurreko topaketaren arrakastaren ondoren. Ekitaldiaren helburua da biltegien kudeaketari buruzko azken soluzioak eta nobedadeak ezagutaraztea: inbentarioa eta ibilgetua murriztea, biltegiak eraginkortasunez kudeatzea, trazabilitatea kudeatzea eta cash flowa optimizatzea. ULMAk, gainera azken urteotan ingeniartzak garatutako kasu praktikoekin sakondu zuen bere hitzaldia. Bigarren hitzorduan, "FARMAZIAKO LOGISTIKA" izenekoan, ULMA Handling Systemsek bere nobedadeak aurkeztu ditu medikamentuak eta produktu sanitarioak prozesatzeari eta banatzeari buruz, eta sektore horretarako garatutako kasu praktikoekin adibideak erakutsi ditu. ULMA Handling Systems logistikako automatizaziorako soluzioetan espezializatutako ingeniaritza da, eta Supply Chain Software soluzioak garatzen ditu, jarduera horretan hasi zenetik inspiraziotzat dituen balioetan oinarrituta: bezeroei soluzio pertsonalizatuak eskaintzea, bezero bakoitzaren egiazko beharren azterketa zehatzean oinarrituta eta bezeroarekin batera detektatutako beharrei erantzuteko soluzioak garatuz.



ULMA Taldea

ULMA Taldeak Merkatu Txiki Solidarioa abiarazi du Hermansoloña GKEarekin


ULMA Taldeak, bere Fundazioaren bitartez, ekimen berri bat abiarazi du Gizarte Erantzukizuneko ekintzen dekalogoaren barruan eta, horrenbestez, Merkatu Txiki Solidarioa abiarazi du, Hermansoloña GKEarekin lankidetzan, bere bazkide eta langile guztiek parte hartzeko. Ekimenaren helburua ULMA Taldeko bazkide eta langile guztien artean container bat betetzea da, ondoren Jose C. Pazera bidaltzeko, Argentinara, bertan garatzen baitu Hermansoloña GKEak bere zeregin humanitarioa. Ekimen solidarioan parte hartu nahi duten bazkide eta langile guztiek nahi duten arropa eta oinetako guztiak eraman ditzakete ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletara (umeentzako arropa, 14 urte arteko haurrentzako arropa eta oinetakoak, kirol materiala, eskola materiala, etab.), Oñatiko Garagaltza auzoko 51 zenbakira, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 17:30era, 2011ko urtarrilaren 31ra arte. Informazio gehiagorako, Fundazioaren webgunea kontsulta daiteke: www.fundacionulma.com.



Portaldeko sarbidea, pasahitzik gabe

Joan den urrian Portaldeko sarbidea gaitu zen erabiltzailerik eta pasahitzik gabe sartzeko, ULMAko sare osorako. Portaldeko helbidea sartzera, erabiltzailearen pasahitza detektatzen da automatikoki, horrek Windows saioa hasten duenean. Operatiba horrek exijitutako segurtasun parametro guztiak betetzen ditu, erabiltzaile bakoitzak informazio jakin bat eskuratuko baitu, bere profilaren arabera. Portaldeko bisita kopurua handituz doa hiletik hiler, eta dagoeneko hilean 3.500 bisita inguru jasotzen ditu. Datu horrek egiaztatzen du ULMA Taldeko erabiltzaileen artean Portalde finkatuta dagoela, tresna erabilgarri eta atsegina gisa, uneoro behar dugun informazioa arin eta erraz eskuratu ahal izateko. Portaldek enpresa eremuko zerbitzu ugari eskaintzen ditu: lankidetzako guneak, edukien kudeatzailea, prestakuntza, baliabideen kudeatzailea, etab. Gainera, maila sozialagoan, eta langileen parte hartzean eta lankidetzan oinarrituta, Portaldek 2.0 tresnak sortzearen alde egiten jarraitzen du eta, esaterako, ULMA Taldearen Blog Korporatibo berria abiarazi du.

<http://portalde.ulma.com>



BA AL ZENEKIEN...

Joan den udan ULMA Pipingek milioi bat euro inguruko eskari bat itxi zuen Arabiar Emiratuetan gas planta batean parte hartzeko, Italiako ingeniariaren bitartez. Aipagarria da hitzarmenean aurreikusitako bidetako neurria, 64" eta 84" arteko neurrikoak baitira, karbono altzairuzkoak zein material herdoilgaitzezkoak. ULMArentzat soluzio integral bat hornitzeko lehenengo proiektua da oraingo hau, izan ere, bai diseinuaren eta kalkuluaren fasea, bai piezen fabrikazioa, ULMAko Oñatiko instalazioetan egingo dira.

ULMA ORGA JASOTZAILEAK ETA ZERBITZUKO BERRIKUNTZA. Bere bezeroen egiazko beharrei egoki erantzuteko helburuarekin, ULMAk alokairu kontratu berriak atera ditu merkatura, Flessirent eta Partrent alokairu kontratuak abiarazi zituen merkatuaren beharrei aurrea hartzeko ildoari jarraituz. Flessirent eta Partrent formulek lortutako harrera ona ikusirik, eta kontratu berrien beharra dagoela ohartuta, alokairu berriak plazaratu dira, horien artean: TOPRENT. TOP orga berregokitu bat behar bada, denbora tarte jakin baterako, aukera ematen da garrantia guztiekin alokatu ahal izateko. Aukera merkea, 2,5 T baino gutxiagoko TOP modelo guztietarako, erosteko urteko aukera duena. Beste kontratu mota bat XXL da, bezeroaren esku txanda batez lan egiten duten orga jasotzaile berriak jartzen dituena. Aukera hori iraupen luzeko alokairu kontratuak hautatzen badira erabili ahal izango da. Makina berregokituak alokatzeko aukera hautatzen bada, urteko erosketak aukera duen kontratu mota honetaz baliatu ahal izango da. Finean, ULMAk zerbitzua berritzen jarraitzen du, baita zalantza handiko garaioetan ere, eta hori lehiakideengandik bereizten gaituen ezaugarria da.



ULMA Handling Systems

ULMA Handling Systemsek logistika automatizatzeko proiektu aitzindaria garatu du Eroski Freskoetarako

Instalazioa ULMA Handling Systems, Eroski eta Euro Pool Systemen arteko lankidetzaren emaitza da, eta berrikuntza teknologikoa eta iraunkortasunerako hobekuntzak dira osagai nagusiak

ULMA Handling Systemsek sistema automatiko bat garatu du eskariak prestatzeko, Eroski Freskoetarako, Madrilgo Guadalix de la Sierrako plataforman, eta sistema aitzindarizat jo da, kontzeptuagatik zein diseinuagatik. Proiektua Euro Pool System, Eroski eta ezarritako soluzioaren hornitzaile teknologikoa den ULMA Handling Systems enpresaren arteko lankidetzaren emaitza da. Lankidetzaren ondorioz, Eroski Espainiako lehenengo supermerkatu katea izango da produktu freskoetako eskariak prestatzeko sistema automatiko bat erabiltzen duena, Euro Pool System ontzi itzulgarriak erabiliz. Proiektuaren muina ULMA Handling Systemsek garatu eta ezarritako sistema automatiko bat da, eta hiru elementu nagusi ditu: sailkapen automatikoko sistema bat (STV), eskariak prestatzeko sistema automatizatu eta buffer sistema automatiko bat. Sailkapen automatikoko sistemak (STV) bidalketa buffererantz edo eskariak prestatzeko sistema automatizaturantz zuzentzen ditu paletak. Halaber, sistemak orduko 800 palet mugitzeko ahalmena ere badu.

Eskariak prestatzeko sistema, berriz, soluzio guztiz automatizatu da, intentsitate eta pisu handiko operazioak egitea ahalbidetzen duena. Sistema produktuak plastikozko kaxetan manipulatzeko diseinatuta dago, eta produktuak modu guztiz harmonizatuan manipulatzeko bermatzen du. Halaber, langileak ergonomikoak ez diren lanak egiteko libratzen ditu, eta instalazioa guztiz garbitzen laguntzen du, hain zuzen ere, hori ezinbesteko faktorea baita elikaduraren sektorean. Buffer sistema automatikoak hainbat transjasogailu ditu, eta eskariak prestatzeko eta bidaltzeko behar den palet hornidura automatikoki erregulatzen du. Sistema automatiko hau guztia garatzeari esker, Eroskik nabarmen hobetu ditu ergonomiako ratioak, ahaleginik handiena eskatzen duten prozesuetan eskuzko manipulazioa kendu baitu. Gainera, aurrerapen handiak lortu dira segurtasunari lotutako gaietan, oso sistema sendoa baita, produkzioari egonkortasuna eskaintzen diona eta eskariak prestatzeko sistemari malgutasun handiagoa eskaintzen diona.



ULMA Embedded Solutions



ULMA TALDEAREN SUSTAPEN BERRIAK, EMBEDDED SOLUTIONSEK, MICROSOFT WINDOWS EMBEDDED STANDARD 7 MERKATURATZEKO EKITALDIA OSPATU ZUEN. Microsoft Windows Embedded Standard 7 merkaturatzeko ekitaldia ospatu zuen ULMA Taldeak Oñatin dituen instalazioetan; bertan, aplikazioaren nobedade nagusiak aurkeztu ziren. Merkaturatzeko ekitaldian sarrera teoriko bat egin zen, MWES 7k eskaintzen dituen nobedade berriak azalduz, eta, ondoren, teoriarik azaldutako guztia praktikan jarri zen, aplikazioarekin kontaktu erreal bat eginez. Horrez gain, parte hartzaileek aukera izan zuten gure Windows Embedded Standard 7ko adituekin harremanak egiteko, ziztuzten zalantzak eta kezak argitzeko. Halaber, Arrow Iberia Electrónicoako kideak ere presente egon ziren, eta informazio praktikoa eman zuten lizentzietan eta tresnei buruz.

ULMA FUNDAZIOAK WEBGUNEA ESTREINATU DU. ULMA Fundazioak Interneteko gune berria estreinatu du. *Zuretzat* ULMAko Enpresa Erantzukizun Sozialari lotutako elementu guztien komunikazio bidea izango da, zehazki, ULMA Fundazioan gertatzen den orori buruzkoa. Webgune honen bitartez ULMA Fundazioak Enpresa Erantzukizun Sozialarekin duen konpromisoa ezagutarazi nahi da, modu erraz eta atseginean. Bertan Fundazioak eta bere laguntzaileek antolatutako ekimenei buruzko informazio eguneratua aurkitu ahal izango duzu, interes orokorreko erreportajeak eta artikulua, elkarrizketak, etab. ULMA Fundazioa, Interneteko joera berriekin bat eginik, 2.0 guneetan ere presente dago, esaterako, Facebook, Youtube, Flickr eta abarretan, eta, gainera, bere blog propioa ere badu. Sartzeko helbidea: www.fundacionulma.com edo www.ulmafundazioa.com. Animatu, sartu eta partekatu gurekin informazio guztia!



ULMA Agrícolak hitzarmena sinatu du TECNALIArekin berotegietan modulu fotovoltaikoak instalatzeko



ULMA Agrícolak eta TECNALIAk, azken horren ENERGIA Unitatearen bitartez, lankidetzan hitzarmena izenpetu dute, Eclipse proiektu izeneko, modulu fotovoltaiko bat garatzeko, berotegietan laborantza eta autohornikuntza energetikoa ahalbidetuko dituen. Herrialde askotan lurzorua urria dela eta, beirazko berotegietako estalkiak kokagune erakargarria dira gaur egun eguzki energia fotovoltaikoa instalatzeko. Laboreen bideragarritasunari lotutako baldintzek, batez ere barruko argiari eta itzalari dagokienez, oro har bideraezin bihurtzen dute beira-beira moduko modulu fotovoltaiko konbentzionalekin batera jardun ahal izatea. ULMA Agrícolarekin lankidetzan TECNALIA-Energiak berotegietan integratzeko garatu duen modulu fotovoltaiko berriak irtenbide bat eskaintzen du arazo horri begira, elektrizitate berriztagarria sortzeko aukera ematen baitu, laboreak gehiegizko itzalaren kalterik jasan beharrik gabe. Urte sasoiaren arabera eguzki erradiazioa desbideratzen duen sistema optiko baten bitartez, inolako eguzki jarraipen mekanikorik egin behar gabe, laboreak behar dituen baldintzak bete daitezke. Horrenbestez, negu garaian, berotegi barruko argitasuna ia ez da murrizten, eta hori funtsezko parametroa da landareak egoki garatuko badira. Uda garaian, berriz, sistema optiko batek modulua osatzen duten zelula fotovoltaikoetarantz desbideratzen du eguzki erradiazioa, eta, ondorioz, proiektuaren helburuak betetzea lortzen da: udan berotegiaren gehiegizko beroketa murriztea, neguan berotegi barruan erradiazio maila mantentzea eta instalatutako modulu fotovoltaikoetan ekoizpen elektrikoa optimizatzea. Modulu berriak, beraz, gailu fotovoltaikoak eta laboreak elkarrekin egotea ahalbidetuz gain, sasoiaren arabera berotegi barruko erradiazioa eta barne tenperatura kontrolatzeko elementu gisa ere badihardu.



Modulu fotovoltaiko berriaren teknologiaren onurak dira inbertsioa berreskuratzeko tarte laburtu egiten dela eta "eguzki baratzeen" arazoei irtenbidea ematen zaiela. Modulua, sistema optikoa eta berotegiko estalkiari elkartutako elementuak diseinatzeko prozesua burutzeko, ULMA Agrícolaren berotegietan prototipoak instalatuko dira eta horien funtzionamendua monitorizatuko da, maila guztietan. ULMA Agrícola- TECNALIA partzuergoak espero du datorren 2011. urtean produktua merkaturatzeko prest egongo dela.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímerok Arkitektura, Hormigoi eta Iraunkortasunari buruzko jardunaldian parte hartu du

ULMA Hormigón Polímerok Arkitektura, Hormigoi eta Iraunkortasunari buruzko jardunaldian parte hartu du, Altamira jauregian, Europako Diseinu Institutuak Madrilan duen egoitzan, CONSTRUIBLE atariko Ekitaldi eta Prestakuntza dibisioak antolatuta. Jardunaldiaren sustatzaileak izan dira Madrilgo Arkitektoen Elkargo Ofiziala eta Arquitectura Fundazioa, ULMA Hormigón Polímeroren lankidetzarekin. Bigarren hizlaria ACXT-EDOM estudioko arkitektoa den Jesus Armendariz izan zen, zeinak, ULMA Hormigón Polímerok gonbidatuta, Ibaiondo Auzo Etxeko proiektuari buruz hitz egin zuen; eraikuntza itzel eta iraunkor hori, 14.000 metro koadroko azalerarekin, Gasteizko ekipamendu sozialik abangoardistena bihurtu da. Armendarizen hitzetan, eraikuntzako soluzioa ULMAren fatxada aireztatua izatea izan zen faktore nagusietakoa eraikinak B motako kalifikazio energetikoa lortzeko; ondorioz, eraikinaren iraunkortasun energetikoa errekonozitzen da, izan ere, alderdi hori gaur egun ezin da inolako proiektutan alde batera utzi. Ehun profesional inguru joan ziren jardunaldira hainbat hizlariaren hitzak entzutera. Aurkezpenean, arkitektoa eta CONSTRUIBLE atariaren zuzendaria den Ines Lealek arkitekturaren historian zehar hormigoiak izan duen protagonismoa nabarmendu zuen inaugurazio ekitaldian, esan zuenez, *“gehien erabiltzen den*



elementua baita, uraren ondotik”; horrez gain, *“industria egiten ari den ahaleginak”* nabarmendu zituen, *“preskriptoreek material hori aintzat har dezaten, ez soilik eraikuntzarako ezinbesteko elementu gisa, baizik eta ingurumenaren errespetuaren aldetik ere”*, adierazi zuen.

ULMA Inoxtruck

ULMA INOXTRUCKEN ARRAKASTA CONXEMAR AZOKAN. ULMA Taldearen Sustapen berria den Inoxtruckek bere soluzio higienizagarri berriak aurkeztu zituen arraina prozesatzeko plantetako garraiorako, kontserban zein izoztuta; aurkezpena Conxemar-Itsasoko Produktu Izoztuen Nazioarteko Azokan egin zuen, Vigon, joan den urrian. Azokan 130 kontaktu baino gehiago eginik, eta horietatik 100ek baino gehiagok eskatu dute erakutsitako produkturen bati buruzko eskaintza, ULMAk zorionak jaso zituen hainbat bezero garrantzitsuren partetik, horien artean Rianxeira, Pescanova, etab., aurkeztutako produktuen higienizagarritasunagatik; diseinua oso berritzailetzat baloratu dute, eta batzuek *“bat-batean maitemindu”* ere egin direla adierazi dute. Gainera, bai bezero horien mantentze lanetako arduradunek, bai azokara joan ziren zenbait banatzailek, goraipatu egin zituzten diseinuaren sendotasuna eta mantentze lanetako kostuen murrizketa, diseinu estankokoak erabiltzen direlako (arrabolak, konpartimendu elektrikoa) eta erabilitako material herdoilgaitza kalitate handikoa delako, iraganean erabili dituzten kalitate eskasagoko beste inox batzuekin alderatuta. Aurkeztutako produktuen gaman aipatzekoak dira diseinu higienizagarriaren eta erabilitako material herdoilgaitzen berrikuntza, arraina prozesatzeko eta ontziratzeko aretoen baldintza zorrotzei erantzuten baitiete. Diseinu higienizagarriak aukera ematen du ekipamendu horiek aretoak egunero garbitzeko prozeduran sartzeko, prozesatzeko eta enbasatzeko makinekin egiten den bezala, prestazioei eta bizitza baliagarriari kalte egin gabe. Aurkeztutako gama ULMA INOXTRUCK kargak garraiatu, jaso eta manipulatzeko diseinatzen eta fabrikatzen ari den produktuen katalogoaren aurrerapen bat da, elikaduraren sektorearen gela zurietan (arraina, haragia, gaztak, etab.) eta laborategietan lan egiteko, azken horretan bereziki farmazi industriaren arloan.



“Oñatiko Campus berriak nazioarte mailan erreferentzia izan nahi du”

Jasaten ari garen egoera sozio-ekonomiko zailaren aurrean, losu Zabalaren ustez, Unibertsitateak zer rol jokatu behar du? Nire iritzia da arazoak izaten ari diren enpresetako asko enpresa onak direla, enpresa arduratsuak, ondareztat hobetzeko ahalegin handiak egin izana eta goranahia dutenak, baina dagokien sektorean bigarren mailako rola jokatzeko ari direla, testuinguru globalean maniobratzeko aukera gutxi edo batere ez dutela. Nolanahi dela ere, Euskadin ohartarazpen zorrotza izan dugu. Egia da, eta azpimarratu eta bere neurrian baloratu behar da, azken 25 urteetan urrats erraldoiak egin ditugula gure bizitzako arlo eta alderdi guztietan, baina, de facto, ekidin ezin dugun globalizazioaren barruan, mendekotasun handiak dituen herrialdea gara.

Eta hortxe datza hain zuzen, nire ustez, etorkizunean dugun erronka handia. Gure enpresa sarearen profila eraldatu behar dugu. Bilakatu, etorkizunean ere fenomeno globalak eragingo dituen gorabeherei buruz immuneagoa izango den sektore eta posizionamenduetara migratuz. Eta “gure erronka” diodanean, jakina, herrialde osoa esan nahi dut, gure lanaren eta gauzen bilakaeran eragiteko dugun gaitasunaren bitartez, eraldaketa hori gidatzeko erantzukizuna dugun eragile guztiak. Eta jakina, unibertsitatea eragile horietako bat da. Ez beharbada garrantzitsuena, baina bai oso garrantzitsua, eta guztiz ezinbestekoa.

Unibertsitate ingurunean aldaketa handiak gertatzen ari dira Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura egokitzeko, eta Gradu berriak aurtengo ikasturtean ezarri dira lehendabiziko aldiz. Nola baloratzen duzu prozesua, eta zer ekarriko digu etorkizunean? 2008-09 ikasturteaz geroztik, Mondragon

Unibertsitatean dagoeneko Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura egokitutako titulazioak eskaintzen ari gara. Bere garaian Euskal Herriko lehenengo eta Estatuko lehenengoetako unibertsitatea izan ginen egoera berrira moldatzen. Gertatu dena izan da 2010-11 ikasturtea azken urtea izan dela unibertsitate espainiarrak titulazioak egokitu ditzaten. Hori argitu eta gero, pentsatzen dut ados egongo garela gazte egresatuak direla etorkizuna. Aurki gure herrialdearen norabidea gidatuko dutenak izango direla. Are gehiago, oso epe laburrera, orain zirriborratzen ari garen estrategietako asko gauzatzea egokitu zaie. Espainiako unibertsitatean dagoeneko aldaketa sakonak egin behar ziren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua lantzeari dagokionez. Jarrerak, rola, ikuspegiak, baldintzak, emaitzak... aldatu behar ziren. Eta aldaketa horiek hain dira sakonak, nekez gauza daitezke lege aginduagatik, hainbat titulu eman ahal izateko ezarritako epemuga baten barruan. Exijitu beharreko aldaketa askoz sakonagoa da, titulu transposizio hutsetik harantzago joan behar da, bestela, arriskua baitago prozesu guztia aurpegi garbiketa hutsa izateko, azaleko aldaketaz osatutako prozesua izateko. Egiazki, unibertsitate askorentzat, muga data prozesuaren hasiera izango da, ez amaiera. Eta hori egoeraren gainean guztiz jakitun nagoela esaten dut, egiazko zailtasuna ezagututa, izan ere, arlo horretan, MUK oso ahalegin handia egin du garai eta behar

berrietara egokitzeko erronka handiari erantzukizunez erantzuteko. Ia hamar urte dira egokitzapen prozesuari ekin geniola, Mendeberrri proiektuarekin. Prozesu luze, zail eta nekeza, alderdi materialetik zein sozialetik. Baina, aldi berean, asebetetzeko modukoa eta esker onekoa, inposaketarik gabe, konbentzimenduz landutako helburu baten atzean dagoen konfiantzagatik, eta dagoeneko lortzen ari garen eta neurgarriak diren emaitzengatik.

Zalantzarik gabe, prestakuntzan egongo da denontzako etorkizun hobea lortzeko gakoa. Ahaleginak norantz bideratu behar dira? MU zein ildo ari da lantzen?

Lehen unibertsitateetako aldaketak aipatu ditut, oro har, eta zehazki gure unibertsitatekoak, egiturazko aldaketak egiteko beharrari erantzuteko. Baina gaur egun gizartean ernamuntzen ari den beste fenomeno bat dago, eta hori guztiz moderno da, belaunaldizkoa, teknologikoa... geldiezina: hezkuntzaren digitalizazioa. Jarduera administratiboan inbertsio estrategikoko proiektu goranahiak sortzen ari badira ere, aurretik etorri den digitalizazio soziala ate joka dugu unibertsitatean dagoeneko, eta oso urte gutxiren buruan errukirik gabe inbadituko gaituela esango nuke. Euskadik erreferentziatzeko herrialdea izan nahi badu, unibertsitateoi Bolognak aldarrikatzen zuen erronka baino erronka zorrotzagoa planteatzen zaigu: sarean natural ibiltzen dakiten gazteak, informazio eta jakintza eskuratzen eta partekatzen ohitura dauden gazteak prestatzea, motibatzea, tutorizatzea... Aurretik ditugun urte gutxi horietan, espero dut unibertsitateak gai izango garela azken berrikuntza pedagogikoak gure ikaskuntza prozesuetan sartzeko, gai izango garela sozialki hedatuta dauden ikaskuntza komunitateak osatzeko; ikasgelak eta ingurune fisikoak gaindituta



“Mendekotasun handiak dituen herrialdea gara”



Iosu Zabala

Mondragon Unibertsitateko errektorea

Iosu Zabala, 57 urteko donostiarra eta hiru alaben aita, Industria Ingeniari Teknikoa eta Elektronika, Elektroteknia eta Automatikan doktorea, Mondragon Unibertsitateko errektorea dugu 2006az geroztik.

izango ditugula, eta jakintza ikasteko eta sortzen saiatzeko moldeak izango ditugula, modu irekiagoan, sarean, tutore-irakasleen eta ikasleen artean partekatuta. 2.0 ikasleak 2.0 unibertsitatearen premian dira. Berrikuntza pedagogiko sistematikorako prozesu batekin konprometituta gaude, gizartea eraldatzeko gai izango den ikasleria prestatu ahal izateko.

Nola baloratzen du errektoreak MUren eta inguruneko enpresa kooperatiboaren arteko harremana? Zer dago egiteko beharrezko lankidetzaren hori indartzeko?

Uste dut Mondragon Unibertsitatearen eta Mondragon Korporazioaren eta bere enpresen arteko harremana garrantzitsua dela. Gure lehendakari Jose Maria Aldecoak oraindik orain esan duenez: "Harreman hau sinbiosi moduan ulertu behar da. Seguruena ezinezkoa zatekeen taldea unibertsitatearekin gabe existitzea, eta seguruena unibertsitatea ez zatekeen existituko talde kooperatiborik gabe". Eredu juridikoaz gain, bi erakundeek helburu komunak dituzte euskal gizartearen aurrerabide sozialari, kulturalari eta ekonomikoari dagokionez. Inguruneko erreferentziako talde kooperatiboekin, hala nola Fagor eta ULMA Taldearekin, zentro korporatiboaz gain, harreman historikoa oso sendoa da, eta lankidetzaren arlo guztietan garatzen da: Unibertsitatearen eta bere fakultateen gestio organoetan parte

hartuz, karrera amaierako proiektuetako ikasleak hartuz, gure ikasleen ikasketalana txandakatzea ahalbidetuz, egiten dugun unibertsitate ondoko prestakuntza eskaintzari aktiboki erantzunez, eta, jakina, ikerketa eta transferentziaren proiektuen bitartez, horiek funtsezkoak baitira enpresen lehiakortasuna segurtatzeko. Zer dagoen oraindik egiteko, bada, edonola ere esango nuke talde horietako zenbait kooperatibarekin lankidetzaren bidezko ikerketa eta Transferentziaren modalitatea indartzeko aukera dagoela, hori oso emaitza onak ematen ari baita buru-belarri aplikatzen ari den enpresetan.

Askok hitz egiten dute prestakuntza bikaina duen baina irtenbide profesionalik aurkitzen ez duen belaunaldi batez.

Nola itzul dakieke esperantza gazte horiei? Egia da nozitzen ari garen krisiaren ondorioz nolabaiteko parentesia igarotzen ari garela, ezin garelako kokatu unibertsitatearekin irteten diren ikasleentzako enplegu osoko zifretan. Baina ez gaude hortik hain urrun. Horrez gain, ez da ahaztu

behar soilik orain dela hiru urte arazo hain zuzen kontrakoa zela, hau da, enpresak benetan kezkatuta zeuden goi mailako profesionalik ez zegoelako. Horrenbestez, pentsa dezakegu parentesi hau ixten doan heinean, hau da, krisia ahultzen doan heinean, berriro ere arazo horren aurrean aurki gaitzkeela. Gu horrelako egoerak leuntzeko alternatibak kontuan hartuz ari gara lanean.

Azkenik, joan den urrian Oñatiko campus berria inauguratu zen. Zer esan nahi du MUrentzat?

Bai, joan den hilean Oñatiko Enpresagintzako Fakultatearen campus berria inauguratu zen. Campus berria lortzea aspaldiko guraria zen. Oñatiko unibertsitatearen campus berria da, MUko Enpresagintza Fakultate berria eta kudeaketa berritzeko MONDRAGON Korporazioak martxan duen MIK - Ikerketa Kudeaketan Zentro korporatiboa hartzen dituen.

Campus berria funtsezko zutabe bihurtu da Muren eta MIK beraren finkapenean, eta nazioarte mailan enpresen kudeaketaren arloan prestakuntza, ikerketa eta berrikuntzako erreferentzia izan nahi du. Oso proiektu garrantzitsua, udalerriko gune enblematikoan dagoena, hirigunetik hurbil, zeinean prestakuntza eta ikerketa baldintza ezin hobeetan elkartzen diren, enpresak eta erakundeak kudeatzaren arloan jakintza gune bakar gisa funtzionatzeko.



"Hezkuntzaren digitalizazioa geldiezinezko fenomeno da"

ULMA Taldea eta erantzukizun



Behaketa Astronomikoa



Mundua hobetzen laguntzeko proiektua



Nagusiak on-line



Elkartasun Azoka


Badira ia 50 urte ULMA konpromisoa eta balio kooperatiboak uztartzen zituen enpresa proiektu batean lanean hasi zela. ULMA Taldeak hainbat hamarkada daramatza emaitzen zati bat Gizarteari oro har bideratzen, eta horretan jarraituko du etorkizunean ere, ULMA Fundazioaren eskutik, gizarte-enpresa ingurunearekin duen konpromisoa gero eta argiago komunikatuz. Erantzukizun Soziala enpresa eta kooperatiba proiektu horren parte da, eta ULMA Fundazioa izango da Taldeak Enpresa Erantzukizun Soziala kudeatzeko duen tresna. Proiektua, ULMA Fundazioaren Patronatuko lehendakaria den Xabier Mugerzak adierazi zuenez, misio bikoitzarekin sortu zen: *“alde batetik, eragile aktiboa izan nahi dugu ingurunearekin dugun interakzioan, eta, bestetik, geu garena Gizartearekin partekatu nahi dugu, gure balioak, kultura eta nortasuna”*. Finean, *“Komunitatea sortzea eta Enpresa Erantzukizun Soziala komunikatzea”*.

soziala 50 urte eskutik helduta

EKIMENEN DEKALOGOA

2010. urtean zehar, ULMA Fundazioak hainbat ekimen antolatu ditu. Ekimen horien bidez, Fundazioak interakzioa lortu nahi du bere interes taldeekin. Tartean askotariko jarduerak aurkituko ditugu, hala nola: ULMA Taldeak bidaiak antolatu zituen Donostiako Illunbera, Lagun Aro Gipuzkoa Basketen partidez gozatzeko, bazkideekin eta Oñatiko ikasle gazteekin; ULMA Taldeak bere kate solidario propioa sortu zuen Vicente Ferrer Fundazioarekin lankidetzan aritzeko; ULMA Fundazioa Mundu Itunari atxiki zitzaion; Boluntariotza Korporatiboko sarien I. Deialdiaren barruan, Mundu hoberako proiektu bat ekimena abiatu zen, laguntza eta gizarte ekintzako lanetan parte hartzen duten bazkide eta langileen lana babesteko eta aitortzeko. Azaro honetan Gurasoak 2.0 hitzaldia eman zen, 12 eta 16 urte arteko ikasleen gurasoei eta senideei zuzenduta. Une honetan, ULMA Taldeko bazkide eta langileen seme-alabentzako Pintura Lehiaketaren III. Edizioa martxan dago. Abenduan zehar, alde batetik, ULMA Fundazioak erretiratuentzako

informatikako ikastaroak antolatuko ditu, eta bestetik Merkatu Txiki Solidario bat. Informatikako ikastaroen helburua da pertsona adinduei informazioaren teknologietara hurbiltzen laguntzea. Parte hartu nahi duen orok izena eman dezake 943 250 300 zenbakira deituz, edo fundacion@ulma.com helbidera mezua bidaliz. Merkatu Txiki Solidarioari dagokionez, ULMA Taldeak bere bazkide eta langile guztiak inplikatu nahi ditu arropa eta oinetakoak jasotzeko kanpaina batean. Azkenik, udaberrian berriro ere Behaketa Astronomikoa egiten saiatuko gara; familian egiteko kultur izaerako ekimena da eta, arrazoi meteorologikoengatik bertan behera utzi behar izanenez, 2011ko udaberrira pasatu da.



IRUNE PASCUAL

Vicente Ferrer Fundazioa

“ULMAk Enpresa Erantzukizun Sozialarekin duen konpromisoak erakusten du enpresa erakundeak kontzientzia hartzen ari direla Gizartearen parte aktiboa izateari buruz. ULMA elkartasunaren adibide bat da, beste erakunde batzuek ere ildo berean jarduteko balio behar duena. Guztiok kontzientziatu behar dugu beharrik handiena duten komunitateak eraldatzen eta garatzen aktiboki parte hartu behar dugula.”



MARIA ASENJO

AransGI,
Gipuzkoako Pertsona
Gorren Familien Elkarte

“Erantzukizun Soziala enpresa konpromisoaren eta gizarte konpromisoaren arteko elkargunean dago; zubi bat da enpresa proiektzioa duten erakundeen eta kolektibo gutxituen bizi kalitatea hobetu eta gizartearen parte har dezaten bermatu nahi duten erakundeen artean”. ULMAk AransGirekin duen lankidetzaren sozializazio jardueren eremuan kokatzen da; horren bitartez, gure elkarteak entzuten ez duten eta entzuten duten haurrentzako aisialdiko guneak eskaintzen ditu, antzeko kideekin zein desberdinekin esperientziak partekatu eta elkarrekin egon daitezten.”

ULMA Construcción eta Aluma SYST

Aliantzaren bitartez uztartu egiten dira Ipar Amerikako enkofratu eta zinbrien abangoardia eta Europako enkofratzeko sistemen fabrikatzaile handienetako baten ideia berriak.



Ezkerretik eskuinera: Aitor Ayastuy, ULMA Construccióneko zuzendari nagusia; Paul T. Wood, CEO eta BRANDeko lehendakaria; Stephen Tisdall, Aluma SYSTEMSeko lehendakaria, eta Iñaki Olalde, Asia, Africa eta Ipar Amerikako gerentea

Joan den uztailaren 21ean Aluma SYSTEMSen (Kanada) eta ULMA Construcciónen arteko aliantza izenpetu zen, ULMA Construcciónen Oñatiko egoitza nagusian. Hitzarmenak bezero iparramerikarrei ahalbidetuko die bi erakundeen arteko sinergiak aprobetxatzea, profesionalen sare global zabal batean sartzea eta bi kontinenteetako enkofratu eta eskora egiturarik berritzaileenak eskuratzea. Aliantza estrategiko honen bitartez, bi enpresek konpromisoa hartu dute lehen mailako segurtasuna, kalitatea eta ekoizpenerako soluzioak ematen jarraitzeko. Aluma SYSTEMSek Kanadako Toronto hirian du egoitza, mundu mailako erreferentea da enkofratuen, eskoramenduen eta industri zerbitzuen arloan, eta 50 herrialdeetan baino

gehiagotan egiten ditu operazioak. Aluma SYSTEMSem arrakastaren oinarria obren eraikuntzan eskaintzen duen segurtasuna, kalitatea eta eraginkortasuna da, lau hamarkada baitaramatza enkofratuak eta eskoramenduak hornitzen. Denbora tarte labur honetan, hitzarmenak fruituak ematen dituela erakutsi du. Gaur egun, besteak beste, Four Seasons katearentzat luxuzko hotel bat egiten ari dira, 200 etxebizitza pribaturekin batera. Proiektua 2 dorrez osatuta dago: batek 55 solairu ditu, lehenengo 20ak hotelera zuzenduak, beste dorrean 26 solairu daude, eta biak zubi goratu batez lotuta daude. ULMA Construcciónen obra honetan HWS Babes Perimetral Autoigokaria erabili da lehendabiziko aldiz, altuerako lanetako guneak segurtatu ahal izateko



HWS Babes Perimetral Autoigokariaren erabilera, Kanadako Four Seasons etxe orratzean

EMSekin duen aliantza estrategikoa

eta materialak igotzeko plataformak edukitzeko. Etxe orratzen eraikuntzan duen esperientziari esker, ULMA Construcción altuerako zenbait proiektutan presente egon ahal izan da, esaterako, Aura Tower proiektuan. Eraikinak 75 solairu ditu, azalera 100.000m² baino gehiago da eta garaiera 245m, eta, horrenbestez, Kanadako bizitegi eraikinik altuena eta Toronto hiriko eraikinik altuenetakoa izango da. Horrez gain, Living Shangri-la dorrea nabarmentzen da: 62 solairu baino gehiago ditu, eta luxuzko hotel bat, bulegoak eta etxebizitza pribatuak hartuko



ENKOFLEX erabiliz lauzak egitea, Living Shangri-la etxe orratzean




CC-4rekin lauzak egitea Living Shangri-la etxe orratzean



CC-4rekin lauzak egitea, Ontarioko Aura Tower-en, Kanada

ditu. 201 m-ko garaierarekin, Kanadako hamalagarren eraikinik altuena izango da. Hain zuzen, eraikuntzan produktu izarrak erabili dira, hala nola CC-4 eta ENKOFLEX enkofratu horizontalak, biak ala biak ALUPROP zinbriekin eskoratuta. Aipatu aliantzaren eremuaren barruan garatzen ari den beste proiektuetako bat Burano dorrea da. Etxe orratz honek fatxada beiraduna du, Torontoko finantza barrutian kokatuta dago, eta 48 solairu



Burano etxe orratzeko planta, Kanada



Burano etxe orratzeko lehenengo solairuak egiteko prozesua, Kanada



Bi etheen produktuak bateragarriak direla frogatu da uraren tratamendurako Milliken estazioan

eta 158 m-ko altuera du. Neurria kontuan hartuta, eta akabera eman nahi izan zaion kalitatea lortzeko, sistema hauek erabili dira: ORMA eta ATR Sistema Autoigokaria.

Uren tratamendurako Milliken estazioa ere aipatzekoa da: ur hornidura ematen du Toronto hirirako eta York eskualderako, eta ULMA Construcciónen eta Aluma SYSTEMSen katalogoaren bateragarritasuna erakusteko adibide



East Hamilton oinezkoentzako zubia, Ontario



Vic-20, Toronto

ona da: ALUPROP dorrez eraikitako eskoramendua ezin hobeto moldatzen da Aluma SYSTEMSen enkofratu mahaiarekin.

ULMA Construcciónek itxaropen handiak ditu hitzarmen honen inguruan, eta itunaren eraginkortasuna gaur egun Kanadan produktu propioekin gauzatzen ari diren beste hainbeste obratan islatzen da: Niagara Bio-zientzien eraikina, Brockeko unibertsitatean (ORMA eta ENKOFORM), Vic-20 (ORMA, CR-250 igotzeko kotsola, BRIO eskailerak), East Hamilton oinezkoentzako zubia (ENKOFORM, ALUPROP), Maple Leafs taldearen izotz gaineko hockey estadioa, etab.



“Hitzarmen honek bi kontinenteetako enkofratu eta eskora egiturarik berritzaileenak eskura jartzen dizkigu”

gutarren argazkiak eta historiak



Irudian Gemma eta ULMA Taldeak babesean hartutako Jayasudha haurra ikus ditzakegu.

**“Anantapurereko
bidaia
esperientzia
zoragarria
izan da”**


ULMA Construccióneko Sevillako Ordezkaritzako Gemma Madueño bazkideak irabazi zuen “Mundu hobe baterako proiektua”-ren deialdia. Anantapurretik bueltan, Gemmak Indian izan duen esperientzia kontatu digu.

Joan den irailaren 23an laguntza eta boluntariotza proiekturik onena saritu zen, “Mundu hobe baterako proiektua” izeneko ekimenaren barruan. Gemma Madueño ULMA Construccióneko bazkidea izan zen lehenengo edizio honetako irabazlea. “Ni nire denbora librean (asko ez bada ere) boluntario aritzen naiz hainbat proiektutan, gaixo dauden pertsona adinduekin eta haur onkologikoekin”. Ez nuen espero deialdi hau irabaztea, baina oso pozik nago, Anantapurereko bidaia esperientzia zoragarria izan baita. Urriaren 14an iritsi ginen Anantapurerra. Egun horretan Narpaleko Landa Klinikara eta Vicente Ferrer Fundazioak duen Amatasun Zentrora joan ginen; bertan 1.100 ohe daude, basektoiak, tronpa loturak eta abar egiten dira. Bidean uneoro Ana Ferrer izan genuen lagun, azalpenak emanez. Emakumeak, haren sendotasunak eta ontasunak, zirrara handia eragin zidaten. Hurrengo egunean ULMAk parte hartutako proiektuak ikustera joan ginen: ezinduentzako etxea Karidipally herrian, eta Narasanayni kunta herrian 53 etxeko kolonia bat, familiarik behartsuenentzat eraikia. Hara iritsi ginenean jende andana nuen zain, eta ni harritu egin nintzen, ez nekielako nire zain zeudela, eta... jainkosa ematen nuen, 200 pertsona baino gehiago zeuden, eta denek ukitzen ninduten, lore koroak ematen zizkidaten, aurpegia klarion gorritz tindatu, muxuak eman... eskerrak ematen zizkidaten ULMAk gaixo dauden ezinduentzako etxe horien zati bat finantzatzeagatik. Anantapurren egondako azken egunean Jayasudha ezagutu nuen. Iritsi nintzanean umea eta gurasoak zeuden zain, herri osoarekin, eta ni hunkitu egin nintzen. Haurra, Jayasudha, polit-polita da, oso polita. 7 urte ditu eta eskualde hartako aktore baten izena du; oso herabea da, eta familia ere bai, ia ez zuten ezer hitz egin, begira-begira nituen, eta eskerrak ematen zizkidaten, eta nik hori transmititzen dizuet ULMA Fundaziokoei, neu bitartekari soila naiz eta. Esperientzia zoragarria izan da, eta neskatoaren berri izatea espero dut, esan dudan bezala, maitasuna hartu baitiot, baita berak niri ere; hasieran ikusi eta negarrez hasi zen, eta azkenean ezaguna banintz bezala besarkatzen ninduen. Ez ditut boluntariotzan ditudan kideak ahaztu nahi, Sevillako Eduardo Datoko San Juan de Dios ospitalekoak eta Gurutze Gorrikoak, Macarena ospitalekoak eta Alamedako Harrera Etxekoak, denontzat agur beroa”.

> **Aururako txangoak**



Koldo Urrestarazu. Euskara teknikaria.



Alleko, Aralarko talaia ikusgarria


“Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan lagunartean egiteko ibilbide erraza eta ederra proposatuko dizuet”

Lizarrustiko mendatean (625m.), Aralarko Parke Naturaleko Interpretazio Zentroaren ondoan, ekingo diogu bideari. 10 kilometro inguruko itzulia da, eta Aralar mendizerran barrena ibiliko gara: zehazki, Lizarrustitik Alleko tontorrera igoko gara, handik Iraioko lepora jaitsi eta Lareoko urtegia igarota Lizarrustira itzuliko gara. Mendatean bertan dagoen aparkalekuan utziko dugu ibilgailua. Interpretazio zentroaren eskuinaldean dagoen aldapatxoan igo eta Lareoko urtegia doan ohiko bidea hartu beharrean, informazio panel bat dagoen lekutik eskuinetara egingo dugu. GR 12ko marra zuri-gorriak berehala agertuko zaizkigu eta bide ageriko batetik pixkana-pixkana gorantz egingo dugu, pagadi ederretatik barrena. Basotik irten gabe, ordu erdi inguruko igoera lasaia egin eta gero, aldapa piko eta

gogorrari egin beharko diogu aurre, Alleko gainaren lepora iritsi arte. Bertatik, eta GR 12ko arrastoak alde batera utzita, Alleko tontorra (1019m) zuzen igoko dugu. Ikusmira ederrak eskaintzen ditu gain nafar honek Gipuzkoanahiz Nafarroa aldera: Beriain, Urbasa, Putterri, Askoa, Intsusburu, Aizkorri, Agautz, Leizadi eta Aralar, besteak beste. Paisaiaz gozatu ondoren, berriro behera egin eta GR arrastoak jarraituko ditugu lehen utzitako lekuan. Iraioko lepora iristerakoan, bidegurutze batekin egingo dugu topo: Putterriko tontorrera eta Igaratza aldera doan zuzeneko bidea saihestuz, beheantz egiten duen ezkerreko bideari helduko diogu. Baso artean egingo dugu jaitziera eta belarrezko pista batera iritsiko gara. Hortik ibilbide laua egingo dugu Akaitzerreka errekatxoaren ondotik-eta, pago handi



baten ondora iritsitakoan, ezkerrera egingo dugu pista nabarmen batetik, hasieran behera eta ondoren gora, Lareoko urtegira (740m.) gerturatu arte. Lareoko urtegira heltzeaz gero, ezkerrera egingo dugu GR 35 arrastoak jarraituz. Inguru zoragarri honetan trikuharri bat ikusiko dugu aurrea eta egurrezko zubi bat igaroko dugu ondoren. Urtegia gure eskuinaldean dugula, aurrera egingo dugu Lizarrustirako seinalearekin topo egin arte. Ezkerrera eta behera egin beharko dugu orduan. Jaitsiera entretenigarria eta polita da oso. Bidearen ondoan dagoen Malkorburuko leizea ikusi ahal izango dugu, esaterako, eta arreta deituko digu, bereziki, Akerretako tunelak, 1916an egindako pasabideak. Harkaitzean zulatutako tunel hau



egurra ateratzeko erabiltzen zuten garai batean. Ibilbide osoko iturri bakarra, gainera, tuneletik irten eta berehala aurkituko dugu, ur freskoa eta ugaria eskainiko diguna. Helmugara iristear gaudela Sukaldezarreko koba ikusteko aukera izango dugu. Bidearen ezkerrean geldituko da harkaitzean gora kobatxo hau, leiho eta guzti duena. Bidean aurrera egin eta berehala iritsiko gara Lizarrusti Parketxera, ibilbidearen amaiera puntura. 1887an eraiki zen mikeleteek Gipuzkoa eta Nafarroa arteko joan-etorria zain zezaten, eta horregatik Mikelete Etxe bezala ere ezagutzen da. Egun puntu hau Aralar Parke Naturalerako sarrera nagusietako bat bihurtuenez, bertan kokatzen da Aralarko interpretazio zentroa, 2009an ireki zena. Eraikinak aterpetxe eta taberna funtzioa ere betetzen du. Itzuliaren ondoren indarrak hartzeko

leku paregabea, hortaz. 3 orduko ibilbide hau egiteko urtaro guztiak dira politak, baina udaberrian egitea proposatuko nizueke, orduan baitago basoa bere edertasun gorenean. Saraiondoko pagadi ikusgarriek txundituta utziko gaituzte!



Datorren 2011. urtean ULMAk 50 urte beteko ditu merkatuan. Zure iritziz, ULMArentzat zer esan nahi du horrelako mugarri batek? Zein izan dira, zure ustez, 50. urtemugara iristeko gakoak?



ARANTXA IÑURRITEGI. ULMA Agrícola

“Kapital humanoa da gure gakoak”

Harrotzeko eta pozteko motiboa, dagoeneko ibilitako bide luze honetan agertu diren erronka eta arazo guztiak gainditu ditugulako. Aurrera egiten jarraitzeko beste arrazoi bat. Arrazoi bat gure iragana presente egon dadin, gure memoria historikoa ez galtzeko, baina batez ere itxaropenez aurrera begiratzeko. Zalantzarik gabe, 50. urteurrenera iristeko gakoak izan dira proiektu partekatu baten aldeko lana, konstantzia, ilusioa, ahalegina eta lankidetzak, espiritu ekintzailea, elkarlana, egunero gauzak hobeto egiteko gogoak. Finean, pertsonak, hau da, kapital humanoa. Pertsonen kapital horretan guztiok norabide berean arraun egitea eta helmuga partekatzea baitago.



ÁNGEL BIAIN. ULMA Construcción

“Poza eta ilusioa borrokan jarraitu ahal izateko”

Ba, poza eta ilusioa ematen du. Poza bizirik dagoen zerbaiten existentzia ospatzen dugulako, eta ilusioa beste berrogeita hamar urtez borrokan jarraitu ahal izateko. Horrelako mugarri bat, berez, proiektuan parte hartu duten ehunka, milaka pertsonen eskertu beharreko zerbait da, kontuan hartuta gure herriarentzat eta ingurunearentzat ekarri duena, horri esker gure izaera eta jokaera hainbat baliorekin aberastu ahal izan baitugu. Behin baino gehiagotan galdetu diogu geure buruari zer izango zen ingurune hau ULMA proiektua egon ez balitz. Bere garaian horrelako ekintzaileak egoteari esker, gaur egun zerbait hobea bizi ahal izan dugu. Eta, horregatik, borrokatzen jarraitu behar dugu, belaunaldi berriek beraien isla aurkitzeko eta hazten jarraitu ahal izateko ildo edo bide bat izan dezaten. Funtsezkoak dira gure pertsonen inplikazioa, langileen arteko elkartasuna, eta egokitu zaigun mundu lehiakor honetan hazteko eta nor izateko gogoak. Nire iritziz, krisia hain gogor jotzen ari den momentu hauetan, ULMA proiektua berriro bultzatzeko unea da, sormen, borroka eta, batez ere, ANIMO giroan. Konbentziturik nago aurrera egin dezakegula, eta egin behar dugula, etorkizunera begira, guregatik eta datozen belaunaldiengatik. Azkenik, ZORIONAK eta ESKERRIK ASKO ULMARI.



JAVIER SUÁREZ. ULMA Conveyor Components

“Beti nabarmendu gara gure espezializazio maila handiagatik”

Hasiera-hasieratik, ULMA Taldea bere 8 Negozio jardueretako bakoitzaren espezializazio maila handiagatik nabarmendu da beti. Taldeari atxiki zaion azkena garai bateko Rochman izan da, 2009. urtean. Gu zortzigarren negozio unitatea gara, ULMA Conveyor Components, 1957az geroztik arrabolak, euskarriak eta danborrak fabrikatzen espezializatuta, produktuak handizka zein banakako kargak garraiatzeko. ULMA Conveyor Components ULMA Taldearen proiektura elkartzen azkena izanik ere, eta 50 urte hauetako bizipenak ekarri ezin baditugu ere, uste dut oso gertakari garrantzitsua dela, enpresa eredu kooperatiboa indarrean dagoela frogatzen duelako.

Harrezkero egindako bidea luzea izan da, ez arazotik libre egon, baina kooperatiba haietako kudeatzaileek eta langileek guztiak gainditu zituzten, Mondragon Korporazio Kooperatiboan lehenengo mailako enpresa taldea izateraino, eta ULMA Taldeak munduan markaren irudia irabazteraino. Gaur egungo krisi garaian ULMA Taldeko hainbat negozio, gurea barne, arazoak izaten ari badira ere, hau da, urtemuga krisi garaian etorri bada ere, uste dut ez dela alferrik pasatzen utzi behar, eta beste aktibo bat balitz bezala erabili behar dugula, egoera honetatik sendotuta irteteko lagungarri.



JAVIER CONDE. ULMA Piping

“Enpresa eta lana ulertzeko bestelako modu bat baieztatzea da”

ULMArentzat eta taldea osatzen dugun guztiontzat enpresa eta lana ulertzeko bestelako modu bat baieztatzea da. Enpresa eredu bidezkoago eta zuzenago bat posible dela baieztatzea, mundu gero eta lehiakorrago batean. Guztioi gertaera honek konfiantza eta ilusioa sortu behar liguke krisi garai hauetan, inoiz baino gehiago, gure eredu enpresaren sendotasuna proban jartzen ari baita. Nire iritziz, zifra horretara iristeko gakoak izan dira bazkide langileen hainbat belaunaldiren lana eta esfortzua, baina baita ere eredu kooperatiboaren ezaugarri bereizgarriak, malguago eta indartsuago bilakatzen baikaitu oraingoa bezalako krisi garaian, taldeko kide garen heinean indartsuago bihurtzen

gaituen elkarrenganako babesarekin batera.

ERRETIROA HARTU DUTENAK: ULMA Taldean 2010eko uztailaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra erretiroa hartu dutenak.



JABIER ALTUBE



FELIPE MURGUZUR



LORENZO MARCULETA



ROSA MARIA URIARTE



MIGUEL ARREGI



PEDRO ALCELAY



ANTONIO PEREIRA



JESÚS IRIZAR



IOSU ERRASTI



FELIX IRIZAR

Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak



ON LINE erretiratuak;

ULMA Fundazioaren beste ekimen bat Interneteko ikastaroa ULMAko erretiratuentzat

ULMA Taldeak, bere Fundazioaren bitartez eta 2010erako Enpresa Erantzukizun Sozialaren barruan programatutako ekimen eta ekintzen artean, On line erretiratuak izeneko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua da erretiratuek Interneten gehien erabiltzen diren tresnen erabilera ezagutzea (posta elektronikoz informazioa jaso/bidali, spama eta postaren gainerako

arrikuak zer diren ikasi, edozein gain interesgarriri buruz informazioa bilatu, webguneetan nabigatu, bilatzaileak erabili, etab.). Ikastaroa datorren abenduaren 16an egingo da, ULMA Taldearen Zerbitzu Zentraletan, Garagaltza auzoko 51 zenbakian. Informazio gehiago, ULMA Fundazioaren webgunean: <http://www.fundacionulma.com>.



Ignacio Maiztegi ULMAko fundatzaileetako hil da

Ignacio Maiztegi, ULMA fundatzaileetako izandakoa, joan den azaroaren 11n zendu zen, 88 urterekin. Ignacio ULMAko M-a eta ULMA Construcciónen antzinako marka izan zen JJEIP-ko I-a zen. Hemendik, gure omenaldi xumea eta errekonozimendua ULMA proiektuaren sustatzaileetako bati. Goian bego.

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK; begira@ulma.es

Eta gainera, beti bezala, gure Iradokizun Kutxa ere badugu, zuen ideia eta iritziak jasotzeko prest.

**ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Garagaltza Auzoa 51 - P. K. 22.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref.: Begira
Email: begira@ulma.es**





MARGOTU DITZAGUN GABONAK

III. PINTURA LEHIAKETA ULMA TALDEKO BAZKIDE ETA LANGILEEN SEME-ALABENTZAT!



ULMA Taldeak bazkide eta langileen seme-alabentzako hirugarren pintura lehiaketa antolatu du: **Margotu ditzagun Gabonak**. Helburu nagusia da hurrek aukera bat izatea marrazki edo margolan baten bidez beraientzat Gabonak zer diren adierazi ahal izateko.

- **Gaia:** Gabonak.
- **Hartzaileak:** ULMA Taldeko bazkide eta langileen seme-alabak.
- **Aurkezpena:** lanak ULMAko Zerbitzu Zentraletan aurkeztu edo bidali beharko dira, Garagaltza auzoa, 51 - 22 PK 20560 OÑATI (Gipuzkoa), Pintura lehiaketa erreferentziarekin.
- **Epea:** Urtarrilaren 10era arte.
- **Sari banaketa:** Otsailak 3, 18:00etan.
- **Parte hartzaileak:** ULMAko bazkide eta langileen seme-alaba guztiak aurkeztu ahal izango dira. Parte hartzaileak bi mailatan banatuko dira: 5 urte arteko haurrak, eta 6 urtetik 10era arteko haurrak.
- **Teknika eta euskarria:** Librea. Edozein teknika erabili ahal izango da. Euskarria edozein formatu izan daiteke. DIN-A4 neurria.
- **Aurkezpena:** Atzeko aldean izena, izenburua, adina, harremanetarako telefono zenbakia eta ULMAko bazkide/langile senidearen izena ipiniko dira.
- **Epaimahaia:** Epaimahaia ULMA Taldeko Komunikazio Batzordeko kideek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia ULMA Taldearen Portalde intranetean jakinaraziko da.
- **Sariak:** bizikleta ekipatu bat maila guztietan.

Bidalitako margolan guztiek margogintzako joko bat jasoko dute. Margolanak ULMAren esku geratuko dira.



ARGAZKI LEHIAKETA

50. URTEURRENA

Gai
Librea



2011. urtean ospatuko den **ULMA Taldearen 50. urteurrena** dela eta, Portaldek zure argazkirik onenak bidaltzeko gonbita egiten dizu. Aurten, eta ahalik eta partaidetza zabalena lortzeko asmoz, lehiaketaren **gaia librea** izango da.

V. edizio honetan, aurrekoetan bezalaxe, partaide bakoitzak asko jota 6 argazki bidali ahal izango ditu.

Irudiak bidaltzeko epea urtarrilaren 5ean itxiko da; eta e-mailez bidali beharko dira, ondoko helbide honetara: begira@ulma.es edo PORTALDEtik sarbide hau erabiliz: <http://portalde.ulma.com>

SARIAK


1 iPhone



2 Irudi historikoak



3 Debarroko atlasak



* Sari hauek partaide guztien artean banatuko dira.




50
1961-2011

Partekatu zure ideia gurekin
eta irabazi bidaia bat Parisera



2011 urtean ULMAk 50 urte beteko ditu. Urte berezia izango da guretzat guztiontzat: gure historia partekatzeko eta, halaber, gure etorkizuna eraikitzeko urtea izango da, hain zuzen.

2011. urtea gertaera hau ospatzeko ekintzez betea izan dadin nahi dugu. Horregatik, ideia eta iradokizunen lehiaketa honetan parte hartu dezazun animatu nahi zaitugu. **Bidaliezazkiguzu, erantsitako kupoiaren bidez, berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko gustuko zenituzkeen ekimen edo jardueri buruzko iradokizunak.** Erantzun edo ideia hoberena sarituko dugu, asteburu bat bi lagunentzat Parisera, zehazki.



Partekatu zure ideia eta irabazi bidaia bat Parisera

Bete kupoi hau eta ekarri, urtarrilaren 10a baino lehen, zure negozioko harrerara; edo bidali postaz helbide honetara:
Grupo ULMA, Garagaltza auzoa 51, 22 pk, 20560 Oñati.

IZENA:

ABIZENAK:

NEGOZIOA:

PROPOSAMENA: